

# Con los pies en las nubes

## Oinak hodeietan

3<sup>a</sup> edición - Agosto 2022

---

### DESCRIPCIÓN PROGRAMA Y OBJETIVOS

*Con los pies en las nubes / Oinak hodeietan* es un programa impulsado por la Fundación Baluarte y Gobierno de Navarra en colaboración con las asociaciones de Artes Escénicas de Navarra, que tiene como objetivo apoyar al sector profesional de las artes escénicas de Navarra, diversificar la programación cultural por el territorio y descubrir nuevos espacios para el teatro, el circo, la magia o la danza y, por lo tanto, proponer una nueva manera de disfrutar de la experiencia cultural y artística por parte del público.

Este programa lleva espectáculos de pequeño o mediano formato de compañías navarras a espacios no convencionales como monasterios, yacimientos arqueológicos, castillos, bosques, y otros lugares de gran valor patrimonial cultural y natural, de forma que tanto el lugar como las propuestas artísticas se enriquecen de manera recíproca, y el espectador puede disfrutar de la belleza de ambas en la misma experiencia.

### DATOS EDICIÓN 2022

1. FECHAS: la programación se realizará en el mes de agosto y estará centrada de jueves a domingo. Habrá como mínimo 12 días de programación en estas fechas:
  - a. 4, 5, 6, 7 de agosto
  - b. 11, 12, 13, 14 de agosto
  - c. 18, 19, 20, 21 de agosto
  - d. 25, 26, 27, 28 de agosto
2. LOCALIZACIONES: espacios escénicos no convencionales, patrimoniales, mayoritariamente exteriores. A modo orientativo se contemplan para 2022 espacios como yacimientos arqueológicos, exteriores y claustros de monasterios, exteriores de ermitas, pueblos, bosques, castillos.

## **PROGRAMACIÓN**

Se realizará una programación que tenga un equilibrio de lenguajes escénicos y de variedad en cuanto al público al que se dirigen. La selección de la programación tendrá en cuenta la calidad y la adecuación de los espectáculos a los espacios. La presencia en la programación de alguna propuesta en euskera se considera también imprescindible.

## **CONDICIONES Y BASES DE PARTICIPACIÓN**

1. Podrán participar presentando su propuesta compañías profesionales de artes escénicas de Navarra (en caso de requerimiento las compañías podrán presentar la documentación acreditativa del alta en la seguridad social).
2. Cada compañía podrá presentar dos (2) propuestas /espectáculos.
3. No se tendrá en cuenta la fecha de estreno de los espectáculos y pueden no haberse estrenado, siempre que se pueda aportar suficiente información y material para su valoración.
4. Los espectáculos deben ser de pequeño o mediano formato y tienen que poder realizarse en exterior.
5. Se seleccionará 1 espectáculo por cada compañía y se llevarán a cabo un máximo de 2 funciones.
6. Se programarán un mínimo de 12 funciones.
7. Duración: se podrán presentar propuestas desde 15 minutos hasta 65 minutos (aproximadamente)
8. Cachés: el caché máximo será de 2.000 € + iva.
9. Información requerida a la hora de presentar la propuesta:
  - a. Título del espectáculo
  - b. Nombre de la compañía
  - c. Nombre de la persona de contacto
  - d. Datos de contacto: email/teléfono
  - e. Ficha Técnica / Dossier del espectáculo (duración, necesidades técnicas, necesidad específica de escenario, acceso vehículo...)
  - f. Enlace a vídeo (si lo hay)
  - g. Especificar si hay lenguaje verbal: euskera o castellano
  - h. Disciplina (danza / teatro / circo / magia)
  - i. Caché

10. Plazo para presentar propuestas: del **21 de marzo** al **20 de abril**.
11. Cierre programación: se prevé realizar la selección para fines de mayo.
12. Las compañías seleccionadas se comprometen a apoyar la difusión del programa en contacto con el equipo de comunicación.

## **FORMULARIO DE INSCRIPCIÓN**

Las compañías deberán inscribirse a través del siguiente formulario: [t.ly/AI8P](https://t.ly/AI8P)

# Oinak hodeietan

## Con los pies en las nubes

3. edizioa - Abuztuak 2022

---

### PROGRAMAREN DESKRIBAPENA ETA HELBURUAK

Oinak hodeietan/Con los pies en las nubes Baluarte Fundazioak eta Nafarroako Gobernuak bultzatutako programa da, Nafarroako Arte Eszenikoen elkarteekin elkarlanean. Programaren helburua Nafarroako arte eszenikoen sektore profesionalari laguntzea, Iurrealdeko kultur programazioa dibertsifikatzea eta antzerkirako, zirkurako, magiarako edo dantzarako espazio berriak aurkitzea da, eta, beraz, publikoaren esperientzia kultural eta artistikoaz gozatzeko modu berri bat proposatzea.

Programa honek konpainia nafarren formatu txiki edo ertaineko ikuskizunak eramaten ditu ohiko ez diren espazioetara, hala nola monasterioetara, aztarnategi arkeologikoetara, gazteluetara, basoetara eta ondare kultural eta natural handiko beste leku batzuetara. Horrela, lekua eta proposamen artistikoak elkar aberasten dira, eta ikusleak esperientzia berean goza dezake bien edertasunaz.

### 2022ko EDIZIOAREN XEHETASUNAK

1. DATAK: programazioa abuztuan egingo da eta ostegunetik igandera bitartean izango da. Gutxienez 12 eguneko programazioa egongo da egun hauetan:
  - a. Abuztuak 4, 5, 6, 7
  - b. Abuztuak 11, 12, 13, 14
  - c. Abuztuak 18, 19, 20, 21
  - d. Abuztuak 25, 26, 27, 28
2. KOKALEKUAK: espazio eszeniko ez-konbentzionalak, ondarezkoak, gehienak kanpo-koak. Orientazio gisa, 2022rako gune hauek aurreikusi dira: aztarnategi arkeologikoak, monasterioetako kanpoaldeak eta klaustroak, ermiten kanpoaldeak, herriak, basoak, gazteluak.

## **PROGRAMAZIOA**

Hizkuntza eszeniko ezberdinen eta publiko ezberdinei zuzendutako proposamenen oreka izango duen programazioa egingo da. Programazioaren aukeraketak kontuan hartuko ditu ikuskizunen kalitatea eta espazioetarako egokitzapena. Euskarazko proposamenen bat programazioan egotea ere ezinbestekotzat jotzen da.

## **PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA OINARRIAK**

1. Nafarroako arte eszenikoetako konpainia profesionalek parte hartu ahal izango dute beren proposamena aurkeztuz (eskatzen bazaie, konpainiek Gizarte Segurantzan alta emanda daudela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu ahal izango dituzte)
2. Konpainia bakoitzak bi (2) proposamen/ikuskizun aurkeztu ahal izango ditu.
3. Ikuskizunen estreinaldi-data ez da kontuan hartuko, eta baliteke estreinatu gabe egotea, baldin eta balioesteko behar beste informazio eta material eman badaiteke.
4. Ikuskizunek formatu txiki edo ertainekoak izan behar dute, eta kanpoan egin ahal izan behar dira.
5. Ikuskizun bat hautatuko da konpainia bakoitzeko, eta gehienez 2 emanaldi egingo dira.
6. Gutxienez 12 funtzio programatuko dira.
7. Iraupena: proposamenak aurkeztu ahal izango dira 15 minututik 65 minutura (gutxi gorabehera)
8. Katxeak: gehieneko katxea 2.000 €+ BEZ izango da.
9. Proposamena aurkezterakoan eskatzen den informazioa:
  - a. Ikuskizunaren izenburua
  - b. Konpainiaren izena.
  - c. Harremanetarako pertsonaren izena.
  - d. Harremanetarako datuak: emaila/telefonoa
  - e. Ikuskizunaren fitxa teknikoa/dossierra (iraupena, behar teknikoak..)
  - f. Bideorako esteka (baldin badago)
  - g. Zehaztu hitzezko hizkuntzarik badagoen: euskara ala gaztelania
  - h. Diziplina (dantza/antzerkia/zirkua/magia)
  - i. Katxea

10. Proposamenak aurkezteko epea: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
11. Programazioa ixtea: hautaketa maiatzaren amaierarako egitea aurreikusten da.
12. Hautatutako konpainiek konpromisoa hartzen dute komunikazio-taldearekin harremanetan dagoen programa zabaltzen laguntzeko.

## **IZEN EMATEKO FORMULARIO**

Konpainiek formulario honen bidez eman beharko dute izena:

[t.ly/AI8P](https://t.ly/AI8P)